

Kanalak

Gure enpresak ondo funtzionatzeko ezinbestekoa da, komunikazio ona izatea eta bezero desberdinei gure proiektuari buruzko informazioa heltzea. Gainera, horrelako enpresa bat montatu ahal izateko ezinbestekoa da jendearen laguntza izatea eta aukera edo iritzi desberdinak entzutea, izan ere, hauei zuzendutako leku bat izango da beraz gure helburua hauek ondo sentiaraztea da.

Hau sustatu eta zabaltzeko, webgune bat egin dugu edozein sartu eta gure enpresari buruz jakin ahal izateko edo edozein zalantza argi geratzeko. Webgune horretan, egingo ditugun ekintza guztiak agertuk dira, karaokea, hitzaldia, kontzertuak... guztia dagokion ordutegia eta informazio guztiarekin. Gainera, webgune horretan gure bezeroak beraien iritzia jartzeko aukera izango dute, horrela guk zer hobetu genezaken jakin dezakegu.

Gaur egun, internetak garrantzi handia izan arren, gehien erabiltzen direnak sare sozialak dira. Hauek egunerokotasuna webgunean baino errezago zabaltzeko aukera ematen dute, baita bezeroenganako arreta eta atentzioa emateko aukera ere, izan ere, oso pertsonala izan daiteke kontaktu oso zuzena izateko aukera ematen duelako. Beraz, sare sozialetan ere gure enpresa aurkitzeko aukera egongo da, bertan egingo diren ekintzak azaltzeaz gain gurekin hitz egin ahal izango da eta uste dugu, edozein kezka zalantza edo beste edozer esateko leku aproposena dela, izan ere badago jendea fisikoz horrelakoak esateko gai ez dena eta mugikor bidez bai.

Hala ere, hainbat eskola eta psikologoekin harremanetan jarriko gara, hauek artatzen dituzten jendea interesatuta egon ezkeror etorri ahal izateko eta momentu on bat pasatzeko. Gainera, gure enpresaren posterrak eta txartelak ere egingo ditugunez, leku hauetan aurkitzeko aukera egongo da, norbait interesatuta egongo balitz.

Honekin guztiarekin, bezeroen erosotasuna eta lasaitasuna lortzea nahi dugu, hau da, gure enpresa guztiz hauei zuzenduta dago eta gure helburu nagusia, bertan dagoen jendea gustora egotea eta momentu on bat izatea da. Horretarako, oso garrantzitsua iruditzen zaigu haiekin oso harreman estua izatea eta gure konfidantza guztia ematea, beraiek dituzten zalantzak, kezkak... lasai esateko aukera izateko eta horrela guk atal hori hobetu eta zerbait hobea eskeintzeko.